



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 20a

70. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuen zenbait alderdi alda ditzan. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez dezan. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek euskara berreskuratzeko eta gartzeko eginiko lana eta Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Euskarabidearentzat. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko. Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztu du (12. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bildu Nafarroa, Aralar-NaBai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Jakina den bezala, helduen euskalduntze alfabetatzearen ibilbidea 70eko hamarkadan hasi zen. Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea erakundearen bidez sustatu eta lagundu zuen zenbait urtez jarduera hau. Harrezkero zenbait euskalategi sortu izan dira, tartean Gobernuarenak berarenak ere bai. Herri ekimeneko euskaltegien diru-laguntzak bideratzeko, berriz, 1988an egin zuten indarrean dagoen foru dekretua.

Herriak sortutako gau-eskola eta euskalategi hauek, ia guztiak, AEK eta IKA sareek elkartzen dituzte. Joan den ikasturtean (aurtengo deialdia oraindik argitaratzeko) Gobernuak diruz lagunduri-

ko 2.000 ikasletik gora aritu ziren zerbitzua Nafarroa osoan eskaintzen saiatzen diren euskalategi hauetan, urritik ekainera bitarteko ikastaroetan. Eskualde askotan herritarrak euskara ikasteko duen aukera bakarra IKA edo AEKko euskalategiak dira.

Parlamentuan orain urte pare bat emandako datuetatik ateratzen zen, Nafarroako Gobernuaren Zubiarte euskaltegian, hasiera batean batez ere ikastaro trinkoak ematen zituen horretan, taldeko eta orduko kostua 112,48 eurokoa zela. Ikastaldekak 10 lagunekoak izanik, ikasleko eta orduko kostua 11,25 eurokoa zen, beraz.

Nafarroako Gobernuak, ordea, 2012. urtean ikasleko eta orduko 0,60 euroko diru-laguntza eman die AEK eta IKAko euskalategiei, hau da, ikasleko eta orduko kostutik oso urrun. Ikasleek, aldiz, herri ekimeneko euskaltegietan Zubiarten halako 4 ordaindu behar izaten dute.

Datu hauek ikusita, garbi ikusten da herri ekimeneko euskaltegiek beste lan batzuk egin behar izaten dituztela beraien jarduera nagusia den helduen euskalduntzeari eusteko. Azken batean, irakasleen ahaleginei esker diraute herritarrei zerbitzua ematen AEK eta IKAko euskaltegiek.

Horrez gain, ulertezina da Nafarroako herritarrek ezberdin ordaindu behar izatea helduen euskalduntzearen zerbitzua jasotzeko; eta, beraz, diskriminazio hori gainditzeko, euskalategi guztien egoera parekatzera jo beharko litzateke.

Nafarroako Parlamentuak 2010eko otsailaren 18an honako erabaki hau onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzat hitzarmen bat sina dezan AEK eta IKA erakundeekin, helduei euskara irakasteko eginkizuna bete dezaten. Hitzarmen horren bidez ziurtatuko zaie nahiko baliabide ekonomiko izatea, prestakuntza beharren arabera, baita xede horre-

tarako dauden baliabideen plangintzaren eta antolamenduaren arabera ere.”

Hiru urte joan dira eta ez da bide horretan inolako urratsik egin, lehengoan segitzen dugu. Hori dela eta aurkezten dugu honako

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du IKA eta AEKren euskaltegien finantziazio ereduaren moldaketa burutzeraz, Nafarroako herritarren artean diskriminaziorik izan ez

dadin ikasten duten euskaltegi eta tokiaren arabera.

2. Nafarroako Legebiltzarrak biztanleria gonbidatzen du euskaltegietan izena ematera, gonbidapen hori biztanleriari helarazteko beharrezko neurriak harturik.

Iruñean, 2013ko ekainaren 6an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzeko eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kultur arloko BEZa murrizteari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko uztailean, Espainiako Gobernuak BEZaren igoera orokorra iragarri zuen. Gainera, igoera horrek aldaketa ekarri zuen kultur arloko

ondasun eta zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zergan, liburuetan izan ezik, horiena bere horretan mantendu baitzen. Hala, 2012ko irailaren 1etik aurrera, zinea, antzerkia eta lan plastikoak bezalako jardueren gaineko BEZa 13 puntu igo zen; hain zuzen, % 8tik % 21era.

2012ko irailera arte, Espainia Europako batez bestekoan zegoen, % 10eko BEZarekin. BEZa igoztearekin, Europako tarte handiaren kokatu gara; hain zuzen, kulturak BPGaren % 4 inguru sortzen duen herrialde batean; izan ere, sektore hori estrategikoa da Espainiako ekonomiarako. Erabaki horren ondorioz, Espainiak du kulturaren gaineko BEZaren portzentajerik handiena, eta horrek desabantaila-egoeran jartzen ditu herritarrak, kultura eskuratzeko.

Lehen unetik izan ziren ohartarazpenak, argi esaten zutenak kulturaren gaineko BEZaren igoera neurrigabeak ondorio oso kaltegarriak izanen zituela, ez bakarrik sektoreko jarduera ekonomikorako, baizik eta kontu publikoetarako ere. Espainiako Gobernuak haserre erantzun zuen eta zalantzan jarri zituen balizko ondorio horiek; are gehiago, esan zuen horiek aurreikuspen tremendistak eta zorrotasun gabeak zirela. Zortzi hilabete igarotzeak ikuspegi hobea ematen du, eta gertakariak argi eta garbi erakutsi dute erabaki hori okerra izan dela.

Ogasun Ministerioaren arabera, 2012ko azken hiruhilekoan kulturaren gaineko BEZa igo ondoren, 2011koan baino lau milioi euro gehiago bildu ziren soilik, baina sektorearen zerga-oinarriak eta

jarduera ekonomikoak 328 milioi egin zuten behera; hain zuzen, % 22. Hau da, BEZak kargatutako produktu eta zerbitzu guztien zerga-oinarriak behera egin duena halako bi.

Are gehiago, Antzerki Enpresaburuen Federazioak duela gutxi eginiko txosten baten arabera, arte eszenikoen sektoreko diru-bilketa % 24 murriztu da azken bi hiru hilabeteetan. Bi milioi zortziehun mila ikusle gutxiago eta mila enplegatu gutxiago. Hala ere, Ogasun Publikoak hamar milioi gehiagoko diru-sarrerak izan zituen BEZa dela-eta. Baina kontuan hartzen baditugu Estatuak PFEZa eta sozietateen gaineko zerga direla-eta jasotzeari utzi diona eta langabezia sarrietan gasetatu behar duena, diru publikoaren galera hemezortzi milioikoa izan dela uste da. Ondorioz, Ogasun Publikoak zortzi milioi euro galdu ditu.

Erabakiaren beste alde bat da ondasun eta zerbitzu kulturalen gaineko BEZa % 21era igotzeko zaildu eta oztopatu egiten duela kultura eskuratzeari eta, hala, kultur ekitaldietara joaten diren herritarren kopurua objektiboki murrizten da.

Nafarroako egoera antzekoa da. Kulturaren munduak ia aho batez eskatu du BEZa modu nabarmenean murriztu dadin, sektoreak bizi duen egoera zaila are larriagoa ez egite aldera. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat onetsi zuen iaz (27 boto alde, 4 aurka eta 18 abstentzio). Hona mozioa, hitzez hitz:

"1.- Kulturaren sektoreak oro har bizi dituen une zailak ikusita, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du kulturaren arloko BEZa ehuneko 21era igotzeko erabakia zuzen dezan eta aintzat har dezan sektoreak ia aho batez egiten duen eskaria, BEZa nabarmen jaistekoa.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion taxututako politika aldatzea, sektoreari oro har ezarritako ehuneko nabarmen jaitsita; izan ere, ezagutu diren datuen arabera, kultur jarduerak jaitsi egin dira oro har Nafarroan 2011n, krisiaren ondorioz."

Halaber, parlamentu-talde honek galdera egin zion Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariari, jakiteko Espainiako Gobernuari eskatu al zitzaion mozioan onetsitakoa, eta kontseilariak erantzun zuen eskaera hori konferentzia sektorialean egingen zitzaiola.

Egungo egoeran bada funtsezko berrietasun bat. Wert ministroak berak, hedabide guztiek jasotako adierazpenetan, esan du "prest dagoela" kulturaren gaineko BEZaren % 21aren erabakia berrikusteko, betiere hori bateragarria bada zerga-finkapenaren helburuekin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, ikusirik alorreko ministroaren adierazpenak eta sektorean izandako emaitzak, berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertzeko beharra.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du BEZaren tasa murriztua ezar dezan kulturarekin zerikusia duten jardueretarako, bere adierazpenei jarraikiz.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Europar Batasuneko erakundeetan proposa eta defenda dezan kultur arlorako % 10etik beherako gehieneko BEZ tasa ezartzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 7an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuen zenbait alderdi alda ditzan.**

### **MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuen zenbait alderdi alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak premiatzeko Nafarroako Kutxaren estatutuen zenbait alderdi alda ditzan, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan maiatzaren 15ean, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen 2013ko hasieran izendatutako Kudeaketa Batzordeak prestatutako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrien proposamena.

Azken asteotan, aipatu estatutu horien ildo nagusien berri izan dugu, bai hedabideen bitartez bai zenbait parlamentu-agerralditan. Azken agerraldia iragan maiatzaren 31ko lan bilera izan zen, Kudeaketa Batzordearekin Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eginikoa, eta bertan informazioa eman zitzaigun, gainera, 2012ko abenduaren 31ko ondare garbiaz, 2012ko aurrekontu-betetzeaz eta 2013ko jarduketa-aurreikuspenaz.

Une honetan, eztabaida juridiko-politiko garrantzitsuenak arreta jartzen du fundazioaren izaera juridikoan (pribatua, Gobernuak defenda-

tzen duen moduan, eta, horrenbestez, Parlamentuaren kontrolatik kanpo geratzen dena, edo publikoa, oposizioaren gehiengoak defendatzen duen moduan, eta, horrenbestez, informazio eta Parlamentuaren zuzeneko kontrol betebeharren menpe), bai eta –neurri batean, horren ondorioz–, bere estatutuak onesteko prozeduran (Nafarroako eta Estatuko gobernuen arteko akordioa, Gobernuak defendatzen duen moduan, edota berariazko lege baten bidez arautzea, PSNk bere foru lege proposamenean planteatzen duen moduan).

Edonola ere, izaeratik eta prozeduratik harago, estatutu berrien edukiak ere garrantzi berezia du. Gure ustez, badira zenbait alderdi trataera zehatza eskatzen dutenak.

Lehenik eta behin, Gobernuak duen pisua etorkizuneko patronatuko kideak hautatzeko orduan. Gobernuaren proposamenean, patronatuko bederatzi kidedatik bost hautatzea dagokio Gobernuari. PSNrenean, Gobernuari hamaikatik bat hautatzea dagokio. Gure ustez, are gehiago Nafarroako Kutxaren inguruan sorturiko alarma soziala ikusita, funtsezkoa da Parlamentuak, Nafarroako herritarren ordezkari den aldetik, patronatuko kide gehienak hautatzea, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak izan ditzaketen eginkizunak galarazi gabe. Ulertzen dugu ez dagoela inolako muga juridikorik gai horri dagokionez. Borondate politikoko kontua da.

Bigarrenik, Parlamentua informatzeko betebeharra dago. Agerikoa denez, fundazioak izaera publikoa duela erabakiko balitz, askok nahi dugun moduan, kontua errotik konponduta legoke. Baina, pribatua izanda ere, bada aukera konpromiso bat arautzeko, Gobernuak era sistematiko eta zehatzean Parlamentuari bidaltzeko Nafarroako Kutxa Fundazioari buruz jasotzen duen informazio guztia, dagoen babesletzaren ondoriozkoa. Horretarako ere ez dago inolako zailtasun juridikorik. Hori ere borondate politikoko kontua da.

Hirugarrenik, Nafarroako Kutxa Fundazioaren ondarearen kudeaketari dagozkion murrizketa jakin batzuk. Jakinarazi zitzaigun estatutu-proposamenean jasotzen dela ondare garbiaren % 5 baino gehiago egiten duen edozein ondasunen gaineko besterentzea edo karga dakarren edozein erabaki onetsi behar duela Gobernuak. Halaber, egiaztatu ahal izan genuen nola 2012an obra sozialean inbertitutako funtsak handiagoak izan

ziren epe berean lortutako diru-sarrerak baino (Caixabanken akzioen dibidenduak, kontuen interesak, beste diru-sarrera batzuk). Zehazki, 14,7 milioi euro inbertitu ziren eta diru-sarrerak, berriz, 12,5 milioi egin zuten, gerakina kontuan hartu gabe. Gu ez gaude horren aurka, baina iruditzen zaigu zenbait muga finkatu behar zaizkiola patronatuaren autonomiari.

Gauza bera gertatzen da obra sozialaren funtsen xede diren ildo estrategikoekin. Jakinarazi zitzaigun 2012an 6,7 milioi gastatu zirela obra sozialeko zuzeneko proiektuetan (% 63,8), eta 3,8 milioi "Ekintzailtza Plana eta ibilgetua" izeneko lerroan (% 36,2). 2013ko aurrekontuan, 6,5 milioi jarri dira lehenengo lerrorako eta 3 milioi bigarrenerako, eta beste bi lerro agertzen dira: 1,9 milioi "Herritarren Parte-Hartzea" lerrorako (Zuk aukeratu, zuk erabaki), eta 1,05 milioi Caixarekin batera gauzatzeko kudeaketa proiektuetarako (dirudienez, Caixak 7 milioi jarriko ditu proiektu horietarako). Halaber, arrazoizkoa dirudi patronatuak askatasun osorik ez izateak lerro estrategiko desberdinen artean funtsen banaketa ezartzerakoan. Gure ustez, logikoena litzateke, 2012ko eta 2013ko datuen konparaketan agertzen den moduan, "Obra Sozialeko Zuzeneko Proiektuak" izeneko lerro estrategikoak bilakaera oso kontinuista izatea, "Herritarren Parte-hartzea" programak (Zuk aukeratu, zuk erabaki) ere ez izatea aldaketa handirik, eta, aldiz, "Ekintzailtza Plana eta ibilgetua" izeneko atala izatea gorabehera gehien izan lezakeena, diru-sarreraren eta Nafarroaren garapen sozial eta ekonomikotik eratorritako beharrezan araberak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalari esleitu ahal zaizkien eginkizunak gorabehera, Nafarroako Parlamentua izanen dela patronatuko kide gehienak hautatuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du konpromisoa har dezan betiere Nafarroako Kutxa Fundazioaren jardueraren jarraipen egokia egiteko beharrezkoa den informazioa bidaltzeko Nafarroako Parlamentura, modu sistematiko eta zehatzean.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari Nafarroako Kutxa Fundazioaren behin betiko estatutuetan ezar dadila ekitaldi batean obra sozialera bideratutako funtsak ezin izanen dutela gainditu epe bereko diru-sarreraren % 125a, Nafarroako Gobernuak horretarako baimen zehatza ematen ez badu.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroako Kutxa Fundazioaren behin betiko estatutuetan ezar dadin ezen "Obra Sozialeko Zuzeneko Proiektuak", "Herritarren Parte-Hartzea" programak (Zuk aukeratu, zuk erabaki) eta "Caixarekin batera gauzatzeko kudeaketa proiektuak" izeneko lerro estrategikoetara bideratutako funtsak ezin izanen direla % 5 baino gehiago hazi urte batetik bestera, Nafarroako Gobernuak horretarako baimen zehatza ematen ez badu. "Ekintzailtza Plana eta ibilgetua" izeneko lerroaren kasuan, Nafarroako Gobernuaren baimen berariazkoa beharko da ekitaldi batetik bestera % 15 baino gehiagoko igoerak egiteko.

Iruñean, 2013ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez dezan.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak eta Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Gobernua premiatzen da saltoki handietarako zerga alda dezan.

2001ean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako saltoki handiak kargatzen dituen zerga berri bat onetsi zuen, zerga horren bidez lorturiko diru-sarrerak bideratze aldera hiriguneetako merkataritza-jarduerak lehengoratzeko eta bultzatzeko eta ingurunean eta azpiegitura sareetan hobekuntzak egiteko jarduketa-programetara.

Hala ere, Espainiako Estatuko Gobernuak zerga hori sortzearen aurkako errekurtoa aurkeztu zuen Konstituzio Auzitegian, eta, azkenik, 2012ko azaroan aldeko ebazpena eman zen.

Ogasun Departamentuak, 1061/2012 Foru Aginduaren bidez –104/2013 Foru Aginduaren bidez aldatu zen–, zerga hori kudeatzeko arauak garatu ditu, eta espero dugu horri dagozkion diru-sarrerak uztailaren 1a baino lehen jaso ahal izatea.

Iragan ekainaren 11n, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak batzordean azaldu zuenez, 2010ean aldatu egin zenez Nafarroako Merkataritza arautzen duen Foru Legea,

interpretazio arazo bat sortu zen saltoki handietarako zergak nori eragiten dion zehazterakoan.

Hasierako aurreikuspenen arabera, zergak 200 saltoki handiri eragin behar ziren, baina hortik beste interpretazio tekniko batera iritsi da, zeinaren arabera soilik 16ri eraginen baitie. Zehazki, badirudi zergaren aplikazio-eremutik kanpo utzi direla 1.500 eta 2.500 m<sup>2</sup> arteko merkataritza-azalera duten saltoki handiak, Iruñeritik kanpo kokatuta badaude.

Bestalde, kontseilari andreak adierazi zuen zerga horren bidez biltzea aurreikusten ziren 1,3 milioi euroek tokia izan zezaketela 2012-2015 urteetarako Nafarroako Txikizkako Merkataritza Sustatzeko III. Planeko "Merkataritzaren Tokiko Garapena" izeneko 2. programan, baina ez zuen ziurtasunik eman ez konpromisorik hartu Nafarroako Gobernuak aurreikusi gabeko diru-sarrera horien erabilera finalistari dagokionez.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legediaren aldaketa bat aurkez dezan, halako moduz non saltoki handien gaineko zergak eraginen dien, gutxienez, txikizkako salmenta balioaniztun edo espezializatuen aritzen diren establezimendu banakako edo kolektiboak, produktu eta zerbitzuen salmenta eta erakusketa-rako 2.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria badute eta Iruñerrian eta 12.000 biztanletik gorako udalerrietan kokaturik daudenean; eta 1.500 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria badute, Nafarroako Foru Komunitateko gainerako udalerrietan kokaturik daudenean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du saltoki handien gaineko zergatik lortzen dituen diru-sarrearen % 75 gutxienez bidera dezan merkataritza erakargarriago egiteko planak prestatu eta Nafarroako udalerrietan abian jartzera. Plan horiek zuzenduko dira gure herrietako merkataritza antolatuta, dinamizatu eta erakargarriago egitera, eta irisgarritasun, mugikortasun eta enpresa-ehunduraren dinamizazio planak jasoko dituzte.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an.

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunak

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa.**

### *BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan maiatzaren 22an, Nafarroako 0-3 urteko hezkuntza zikloaren aldeko plataformako ordezkariak izan genituen Hezkuntza Batzordean. Bertan, egoera eta haien eskakizunak ezagutarazte aldera prestatu duten txostena aurkeztu ziguten.

Parlamentu-talde guztiak bat etorri ginen esaterakoan lehenbiziko adinak oinarrizkoak direla pertsonen identitatearen garapen fisiko, afektibo eta intelektual egokirako. Adin horietan, zaintza eta heziketa profesionala garrantzitsua da haurren adimen-gaitasunak bultzatzeko.

Batzordean gogorarazi zigutenez, lan hori egiteko garrantzitsua da adin horietako haurrak hartzen dituzten zentro guztietan kalitatezko baldintzak betetzea. Baldintza horiek dira, besteak beste, nazioarteko zenbait ikerketatan egiaztatu den moduan eta 2007ko dekretuan, gabeziekin bada ere, islatzen den moduan, hezitzaileen titulazioak, metroei, segurtasunari eta altzariei buruzko baldintza fisikoak, eta gehiegizkoak ez

diren ratioak (hezitzaile bakoitzeko haur kopurua), ume guztiekin harreman positiboak ezarri ahal izateko. Hala ere, faktore horien garrantziari dagokionez bat etorri arren, plataformatik adierazi ziguten gaur egungo egoeran horietako baldintza batzuk okerrera egiten ari direla (batez ere, ratioen igoera), eta baldintza horiek arriskuan jartzen dutela haurren segurtasuna, bai eta beharrezkoa duten arreta, zainketa eta heziketaren kalitatea, nahiz eta horretarako eskubidea izan adin horietan.

Haien azalpenak entzun ondoren eta haien eskakizunak gure egite aldera, parlamentu-talde sinatzaileok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du haur orok duela hezkuntzarako eskubidea jaiotzen denetik, eta haien erritmoa, kultura, ideiak eta ikasteko modu berezkoa errespetatu behar direla.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0tik 3 urtera bitartekoa, hezkuntza-etapa horren berezko ezaugarri jarraikiz.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du zorrotzasunez zaindu ditzan 0-3 urte bitarteko haurrentzat irekitako zentro guztiak, gehienez ere hiru urteko epean bete ditzaten zenbait gutxieneko baldintza, zeinak finkatzeko kontuan hartuko baitira plataformaren esperientzia eta ezagutza.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina plaza publiko eskaini eta finantza ditzan toki entitateekiko ituen bidez –horiek ekonomikoki ito gabe, errealitatean gertatzen den moduan, zerbitzu publikoa mantentze aldera, edota enpresa pribatuekiko kontratetara jo gabe–, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen ziklorako dagoen egiazko eskaera osoa asetzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko nahiz gaztelaniazko ikaspostuen eskariari erantzun diezaion, bai eta gerta litezkeen hezkuntza premia bereziei ere.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Europar Batzordeko



umeentzako arreta sareak kalitate helburuak betetzearren (profesionalen prestakuntza, langileen lan baldintzak...) markatutako joerari jarraitzeko konpromisoa har dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek euskara berreskuratzeko eta garatzeko eginiko lana eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuz García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu ikastolek euskara berreskuratzeko eta garatzeko eginiko lana eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2013ko ekainaren 6an, Nafarroako hegoaldeko ikastolek bizi duten egoera ekonomiko larria ezagutzeko aukera izan genuen Hezkuntza Batzordean. Ikastola horien historia luzea da, denak sortu baitziren 18/1986 Foru Legea onetsi baino lehen. Urte hauetan gauzak ez dira inoiz errazak izan, baina une honetan kolokan dago kalitatezko euskarazko irakaskuntzaren biziraupena eta eskaintza eskualde horretan.

Nafarroako Gobernuak dio euskaraz ikasteko aukera dagoela Nafarroa osoan, nahiz eta, euskararen Legea era murriztailean aplikatuz D eredu eskaintzeari uko egiten dion, baita eskaera dagoenean ere.

Arangoiti (Irunberri), Argia (Fontellas), Erentzun (Viana), Ibaialde (Lodosa), Garcés de los Fayos (Tafalla) eta Rincón del Carmen (Zangoza) ikastolak, zeinak jardunean baitaude, irakaskuntzako kooperatibak dira, ekimen sozialeko eta ekonomia sozialeko ereduak. Eskualdeko ikastetxeak dira, inguruko herrietako eskaintzari erantzuten diete, eta, dauden tokian, euskarazko irakaskuntza jasotzeko aukera bakarra eskaintzen dute; izan ere, euskarazko eskaintza publikoa iristen ez den tokietan daude.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek urteotan eginiko lana euskara berreskuratu eta garatzeko, eta, kontuan hartuta euskararen irakaskuntza funtsezkoa dela euskararen normalizatorako, uste du beharrezkoa dela hura babestea Nafarroa osoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan, halako moduz non irakaskuntza publikoak D eredu eskaintzen ez duen tokietan Gobernuak beharrezkoak diren baliabideak jarriko baititu, euskaraz irakasten duten ikastetxeek hala-egiten jarraitu ahal izateko.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuz García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estratexikiko bat presta dezan Euskarabidearentzat.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan estratexikiko bat presta dezan Euskarabidearentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2013ko ekainaren 12an izan genuen Hezkuntza Batzordean Zubiarte Euskaltegiko zuzendaritzaren, Euskarabideko langileen, Irakasleen Batzordearen eta Administrazio-erroko Langileen Batzordearen ordezkari bat, Zubiarte euskaltegiaren egoerari buruzko balorazio bat egiteko.

Agerraldi horretan salatu zuten plantillaren murrizketa etengabea, nahiz eta Zubiarte Euskaltegiko matrikula etengabe hazi den zentro hori sortu zenetik. Oraingoan badirudi Euskarabideko lau teknikari joanen direla murrizketa hori konpentsatzera. Departamentuak teknikari horien irakaslantza falta argudiatzen du birmoldaketa hori gauzatzeko. Euskarabideko euskaltegian irakaslan gutxitzeak ez dirudi erantzuten dionik ikasle kopuruaren murrizte-prozesu natural bati, baizik eta, batzordean eman ziren argudioen arabera, Nafarroako Gobernuak gauzatutako hizkuntza politikari: ez dago euskara ikasteko plangintzarik Adminis-

trazioko langileentzat, prestakuntza hori jaso nahi duten langileei oztopo ugari jartzen dizkiete baita menak eta konpentsazioak lortzeko, eta Institutuak hasieratik abian jarritako barne politikak erdira jaitsi du prestakuntzan jarduten duten irakasleen kopurua.

Baiezatu zizkiguten, nolabait, Hizkuntza Gutxituei buruzko Europako Gutunean ezarritako konpromisoen jarraipenari buruzko azken txostenean ere eginiko ohartarazpenak, bai eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eginikoak ere:

- Euskara administrazio publikoetan erabilteari buruzko hizkuntza eskubide orokorrak ez dira errespetatzen.

- Ez dago enplegatu publikoentzako prestakuntza planik, herritarrei zerbitzuak euskaraz ere eskaintzera bideraturik.

- Ez dago plan orokorrik, euskarari dagokionez, herritarren hizkuntza eskubideei behar bezala erantzuten dienik.

Kontuan hartuta batzorde hartan esandako guztiak eta gure proposamenak egite aldera, parlamentu-talde sinatzaileek ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan estratexikiko bat presta dezan Euskarabidearentzat. Plan horretan helburuak, prozedurak eta epe zehatzak ezarri beharko dira, besteak beste, Nafarroako Administrazioa euskaraz gaitzeko plan bat garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat presta dezan Nafarroako administrazio publikoetako langileak zerbitzuak euskaraz eskaintzeko gaitzeko eta, hala, herritarrek duten eskubidea, Administrazioak euskaraz artatzekoa, ziurtatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskalduntze programa administrazio-unitate bakarrean egon dadin, hala ere moduz non toki berean kudeatuko baitiren planak, eskaintzak, prestakuntzaren antolamendua, erabaki didaktikoak eta langileen egiaztagiriak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideez horni dezan Euskarabidea, esleitu

zaizkion eginkizunak, bai prestakuntzakoak bai hizkuntz politikaren gainerako alderdietakoak, modu egokian egin ahal izateko, betiere Zubiarte euskaltegiaren eskaintza errespetatuta, bertako plantilla murriztu gabe eta bere ikasleen parte bat Euskarabidera eraman gabe; izan ere, Zubiartek Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalaren

menpeko zentro autonomo bat izaten jarraitu behar du, Euskarabidearen kontrolpean egon gabe.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko.**

*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Jakin dugunez, Renfek erabaki du 2013ko ekainaren 23tik aurrera kentzea, alde zuzeneko

abisurik gabe, Gasteiz eta Iruña arteko eskualdeko tren zerbitzua, "Regional Exprés" izenekoa, zeina herritar askok erabiltzen baitute egunero Dulantzi, Agurain, Araia, Altsasu, Etxarri-Aranatz eta Uharteko Arakil bezalako herrietara joateko.

Renfek mantenduko du Alvia trenek Iruña eta Gasteiz artean egiten duten zerbitzua soilik –egunetan bi bidaia norabide bakoitzean–, baina tren horiek ez dira gelditzen tarteko herrietan. Herri horiek guztiak kaltetuko ditu "Regional Exprés" tren zerbitzua kentzeak.

Gainera, bidaia hori autobusez egitea askoz ere garestiagoa da (5,90 euro trenez eta 8,50 euro autobusez), eta horrek areagotu egiten du tren horien erabiltzaileei egiten zaien kaltea.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko; zehazki, Iruña eta Gasteiz lotzen dituen eskualdeko tren zerbitzua, tarteko zenbait herritan geldialdia egiten duena.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli